

## EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA (2021-2022 IKASTAROA): OINARRIAK

**1.- Oinarrien xedea.** Oinarri hauen xedea da euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren Malerrekako herritarrei diru laguntza emateko modua arautzea.

**2.- Diru laguntzaren gaiak.** Diruz lagunduko dira 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era arte egindako euskara ikastaroen matrikula gastuak. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta *on line* egindakoak.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorri gastuak, liburu eta material gastuak, barnetegietako egoitza gastuak eta ikastaroan edo euskaltegian ikasleak jarduera akademikoaren osagarri moduan egindako beste edozein jarduerengatikoko gastuak. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahalko du.

**3.- Deialdiaren publizitatea.** Deialdi hau aditzera emateko deialdiaren testu osoa Malerrekako Mankomunitatearen webgunean eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**4.- Diru laguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoa.** Diru laguntza mota bakarra egonen da, eta ikastaroan izandako asistentzia mailaren arabera, gehienez ere ikastaroko matrikula gastu osoaren adinakoa izanen da.

- Diru laguntza matrikularen kostu osoaren adinakoa izanen da ikastaroan izandako asistentzia %85etik gorakoa denean.
- Diru laguntza matrikularen kostuaren %75 izanen da ikastaroan izandako asistentzia %70-%85 bitartekoa denean.
- Ez da diru laguntzarik jasoko ikastaroan izandako asistentzia %70etik beherakoa denean.

Gehienez ere diru laguntza hau 380 eurokoa izanen da.

Diru laguntza hauek ordaintzeko gehienez ere Malerrekako Mankomunitatearen 2022ko aurrekontuetan (1 3350 48002 kontu sailean jasotako kreditua) helburu honetarako aurreikusitako diru kopuruak erabiliko dira.

**5.- Eskatzaileak eta bete beharreko baldintzak.** Diru laguntza hau hartu ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintza hauek:

1. Gutxienez 16 urte izatea.
2. Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egotea. Malerrekako udaletan edo Malerrekako Mankomunitatean lanean ari diren langileek diru-laguntza jaso ahal izango dute nahiz eta Malerrekako Mankomunitatea osatzen dute udalerrietako batean erroldatua ez egon.
3. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia maila deialdi honen 4. oinarrian azaldutako portzentajeen arabera izatea. Ez dira kontuan hartuko gaixotasunen, mediku kontsulten edo araturiko azterketetara joatearen ondorioz behar bezala justifikaturiko faltak.
4. Eskatzen den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztea.

5. Malerrekako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira administrazio publikoren bateko langileak izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuak daudenak.

#### **6.- Diru-laguntzak emateko prozedura: aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea.**

Eskabideak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko epea: **2022ko irailaren 1etik 2022ko urriaren 4ra**. Hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b. Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- c. Erroldatze ziurtagiria.
- d. Euskaltegiko matrikularen ordainagiria.
- e. Euskaltegiaren agiria, asistentziari buruzko datuak ematen dituen.
- f. Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azkeneko kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia.

Dokumentazioa Malerrekako Mankomunitatean (Zazpigerutze, 2, beheiti. Doneztebe) aurkeztu behar dute, edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

**7.- Aurkeztutako dokumentazioan egindako okerrak zuzentzea.** Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, 10 egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez baditu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Malerrekako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena eginen du.

**8.- Ebazpena.** Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko lehendakariak hartuko du, Euskara Batzordearen irizpena ikusita. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurtsio bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Diru-laguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2022ko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat joko da.

**9.- Diru laguntzaren ordainketa.** Diru laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren. Ordainketa banku transferentzia bidez eginen da, eskatzaileek adierazitako kontu korrante zenbakian.

**10.- Bateragarritasuna.** Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

**11.- Datuen babesia.** Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen fitxategietan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta Mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe kontserbatuta izan daitezke.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edo/eta legediak horrela agintzen duenean bere datuak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta Mankomunitatearekin harremana duten beste erakundeei, bai publikoak bai pribatuak komunikatuak izan daitezke.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edo/eta dokumentu hau onartzeak esan nahi du eskatzaileak onespina eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatu dezake, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo beharko da, helbide honetan: Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Zazpigurutze, 2, behea, 31740 Doneztebe (Nafarroa) edo posta elektronikoa honen bitartez: [mankomunitatea@malerreka.eus](mailto:mankomunitatea@malerreka.eus). Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jo dezake, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

**12.- Diru-laguntzen itzulketa.** Diru-laguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

**13.- Ordezko arauak.** Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

**14.- Arau-hauste eta zehapenak.** Arau-hauste eta zehapenei dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

**15.- Errekurtsoak.** Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsioa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

**Euskara ikasleentzako diru laguntzak:  
Eskaera orria**

**Eskatzailearen datuak**

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-maila:
- ✓ Kontu korrontearen zenbakia:

IBANa \_\_\_\_\_ 20 digitoak: \_\_\_\_\_

**Euskara ikastaroei buruzko informazioa:**

- ✓ Euskaltegia:
- ✓ Urratsa(k):
- ✓ Ikastaro mota :
  - Estentsiboa
  - Trinkoa /
  - Barnetegia
  - On line
- ✓  2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitarteko matrikula gastuak

€

**Data eta sinadura**

**EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA: ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko edo pribatuk emana.
- Diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>EGOERA</b> (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskaerarik eginez gero, Malerrekako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)